

Landa, Mariasun



PITON SUGEA

...zeharka hitz egiten dudala, zeharka nabilela, eta zer? Bada horregatik, hain zuzen, marra zuzenari diodan amorru eta gorrotoagatik, hurbildu nintzaion berari, ene piton suge maitagarriari, *Jemaa el Fna* plaza marokoar hartan, eta igual-igualak ginela iruditu zitzaidan, benetako izaera ezkutuari dagokionez esan nahi dut, maitasun beharrak narrasti eta bihurri bilakatzen baikaitu, korapilo eta uztai afektiboak sortzen... nola ulertu bestela, etxera heldu eta osasunez sendo eta oihanean ohitutako bi metro eta erdiko piton sugea nire bizkarretik gora igotzen aritzea, laztan herabétiz nire belarriak amultsuki laztanduz-hastea... esaidazue zer esan nahi duen horrek, norbait maitatzeko behar ikaragarria duela ez bada, animalia gajoa kariño faltan, kariño faltan hiri handi honetan, eta nire lepoa inguratuz bere burutxo berdea aurpegira begira-begira geratzen zaidanean egungo populazioaren hazkundeaz hitz egiten diot nik,

nola hirian gero eta jende gehiago dagoen gu gero eta bakarrikago gauden bitartean, eta horrelakoetan, ez dago munduan berak ematen didan baino besarkada es-tuagorik, sutsuagorik, burutik hasi eta hanka puntetarai-noko besarkada, sentsazio esplikaezina, ene piton mai-tea... eta hori ezin dute ulertu etxera etorri eta hirian naufragatutako piton suge ederra sofan etzanda ikusten dutenek, are gutxiago lurrian biribildua aurkitzen nau-tenean, eta zaila egiten zait ezertxo ere ulertzen ez du-tenen galderei erantzuten hastea, ea zer jaten duen nire piztia horrek, ea akuririk edo arratoirik ematen diodan, eta ziur nago erotzat hartzen nautela noiz irentsiko nauen zain nagoela aitortzen diedanean.

**Alukiss. Basotik edanez* liburuan argitaraturiko testua: Antton Olariaga eta idazle askoren arteko liburua. Erein. Donostia, 1992.